



Azpeitiko Udala

FORMAZIOA ERABILERA IZANGO DUEN BASAZABAL JAUREGIKO BI ESPAZIOAK ZABALTZEN-SARTU KOOP. ELKARTEARI LAGATZEKO HITZARMENA

Azpeitian, 2020ko uztailaren 28an.

ELKARTU DIRA

ALDE BATETIK, Nagore Alkorta Elorza andrea, Azpeitiko Udalaren Alkate-lehendakaria.

ETA BESTETIK, Ibon Diaz de Rada Quintana jauna, Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarteko lehendakaria.

BERTARATU DIRA

Lehena, Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan, Udalbatzak 2019ko ekainaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, Elkarlaneko eta gizarte-ekimeneko Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartean ordezkari-lanetan, bere organu gorenak 2018ko abenduaren 19an izandako bilkuran hartutako erabakiaren indarrez egintza honetarako baimendua (2018 abendauren 28ko Eskritura publikoan jasota Juan Ramon Manzano Malaxechevarria notarioaren aurrean).

Agertutako bi alderdiek elkarri aitortu diote Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzeko behar adinako legezko gaitasuna eta, horretarako, honako hau:

AURREKARIAK

I.- 2015. ekitaldian Azpeitiko Udalak Enparan kalea, 18an dagoen Basazabal jauregia berrerabiltzeko erabakia hartu zuen, eraikina balioan ipini eta erabilera berriak emateko helburuarekin. Egokitzapen lan horien amaitu ondoren, bigarren eta hirugarren solairuetan sortu diren espazioak formazioaren atal ezberdinei zuzendu dira.





Azpeitiko Udala

II.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa den apirilaren 7ko 2/2016 legeak Udalari aitortzen dio tokiko ekonomia eta gizarte garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politikak garatzeko eskumena. Legeak, modu berean, gizarte zerbitzuen alorrean gizarteratzea antolatze, planifikatzeko eta kudeatzeko eskumena ere ematen dio. Udalaren 2025rako Plan Estrategikoak, gainera, enplegurako eskubide aktiboa babesten duten funtsezko ardatz gisa, herritarrentzat eta bereziki kolektibo ahulentzat hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza akzioak jaso ditu.

III.- Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarteak Udalari enplegarritasuna eta laneratzea helburu duen prestakuntza proiektu bat aurkeztu dio Udalari. Proiektuak jasotako prestakuntza aukera ezberdinen bidez, bertan parte hartuko duten herritarrek, beren garapen pertsonala ez ezik, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera izango dute.

Elkarlaneko eta gizarte-ekimeneko **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartearen** xedea da mendekotasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta pobrezia-egoeran eta gizarte-bazterkerian dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak eta/edo taldeak erabat gizarteratzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatu eta garatzea. Helburu horiek lortzeko, hainbat jarduera egiten ditu, eta horien artean daude, hezkuntza-jarduerak eta zerbitzuak.

Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; eta horren emaitza da Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 17an hartu zuen akordio, Elkarlaneko eta gizarte-ekimeneko **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartea** Gizarte-interesekotzat aitortuz, burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

IV.- Azpeitiko udalak, ahultasun egoeran dauden herritarrek eta sustengu premia duten gainerako kolektiboek enplegura igarotzeko aukera izan dezaten, baliabideak bultzatu nahi ditu, eta horretarako **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarteari**, formazio alorrean bere xedea betetzeko zehaztuko diren espazioak lagako dizkio.





Azpeitiko Udala

Zehazki, instalazio hori Basazabal jauregiko bigarren eta hirugarren solairuetan daude kokatuta, eta bertan dauden espazioak utziko dira. Elkartek bere jardueran solairu hauetan dauden instalazioak erabiltzea izango dute.

*Hitzarmenaren baitan sartzen diren espazio guztien planoa jaso da.

V.- Azpeitiko Udalak, azaldutako espazioen erabilpena Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarteari dohainik lagako dio, zenbait baldintza jarrita, prestakuntzaren bidez ahultasun sozioekonomiko egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea ahalbidetzeko. Hori guztia, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta Toki Erakundearen Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraiki.

Horiek horrela, bi aldeek agiri honetan jasotzen den erabilera dohainik lagatzeko hitzarmena sinatzen dute, jarraian zehazten diren klausulen arabera,

KLAUSULAK

LEHENA: Azpeitiko Udalak dohainik lagatzen dio **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarteari**, eta entitate honek onartu egiten du, Basazabal jauregiko bigarren eta hirugarren solairuak ahultasun sozioekonomiko egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea ahalbidetzeko prestakuntza ikastaroak emateko.

BIGARRENA.- Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartek ahultasun sozioekonomiko egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea ahalbidetzeko prestakuntza ikastaroak emateko xederako bakarrik erabiliko ditu lagatako espazioak.

HIRUGARRENA.- Espazioen erabilera lagapena lau (4) urterako egingo da zazpigarren eta zortzigarren klausuletan jasotako iraungitzeko arrazoiak ematen ez diren bitartean.

Lagapen epealdia 2020ko uztailaren 28tik hasiko da kontatzen, eta 2024ko uztailaren 27an amaituko da.





Azpeitiko Udala

LAUGARRENA.- Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartekak, bere aldetik, prestakuntza proiektua martxan jartzeko beharrezkoak dituen gainontzeko baimenak tramitatu eta lortu beharko ditu.

BOSTGARRENA.- Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartearen betebeharrak hauek izango dira:

- Lokalei aipatutako erabilera ematea, behar bezalako arduraz eta arretaz; eta gaizki erabiliz gero, izandako kalteei erantzutea.
- Lokalen erabilpenean eta aprobetxamenduan hirugarrenen aurrean erantzutea, edozein erantzunkizunetatik Udala salbuetsiz.
- Bere gain hartzea material informatikoa eta telefono gastuak. Udalaren gain izango dira garbitasun, zabor bilketa, argindar, ur eta gas gastuak eta, baita, lagatako lokalaren erabileratik sortutakoak ere.


SEIGARRENA: Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartearen ardura izango da ekitaldi bakoitzean emango den prestakuntza proiektua lantzea, Udalaren formazioa alorreko zerbitzuarekin elkarlanean. Udalaren formazio alorreko zerbitzuaren ardura izango da lokalen kudeaketa, horietan eskainiko diren prestakuntza zerbitzuak koordinatzeko.

Ekitaldi bakoitza amaitu ondoren, beharrezkoa izango du Udalaren sarrera erregistroan emandako prestakuntza proiektuaren memoria tekniko-ekonomiko bat aurkeztea. Horrez gain, Dirulaguntzak arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak laguntza baten onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du (Elkartearen adierazpenak formulario normalizatuen bidez egingo dira).

Zabaltzen-Sartu Koop. Elkartekak ezingo ditu espazioak laga, erabilera eskualdatu edo lehen klausulan ezarritako xedea ez den beste baterako ibili.

ZAZPIGARRENA.- Kontratua iraungitzat jotzeko arrazoiak.

- Lagapen hitzarmena iraungitzat eta amaitutzat joko da, ezarritako iraupen epea amaitutakoan





Azpeitiko Udala

- Horretaz gain, aurretiaz iraungi daiteke kontratua, ondoko arrazoiengatik

- Lagapenaren oinarri den prestakuntza proiekturik ez ematea.
- Lagatako espazioak beste xede baterako erabiltzen bada edo lagapen hitzarmen honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira
- Erabilerak espazioetan edo Basazabal eraikinean kalte larriak eragiten baditu.
- Elkarren artean adostuta.
- Planeamenduaren aldaketa bat dela eta eraikuntzaren erabilera aldatzea.
- Lagatako ondasuna desagertuz gero.
- Legez edo hitzarmenez aurreikusitako gainerako arrazoiengatik.

ZORTZIGARRENA.- Udalaren gain izango dira hitzarmen honetatik sor daitezkeen gorabehera edo eztabaida guztiak argitzea. Gizarte Zerbitzuak eta Udalaren Formazio sailen gain izango da **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarreak** sustatu duen prestakuntza proiektua Udalaren formazio proiektuarekin ondo uztartzen dela ziurtatzea, eta edozein arazo izanez gero, bi entitateak beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte prestakuntza akzio ezberdinak koordinatzeko. Edozein kasutan, bi entitateak batzorde tekniko bat eratuko dute hitzarmenaren helburuaren jarraipena egiteko.


BEDERAZIGARRENA.- Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez

Dagokigun hitzarmena Europar Batasunak egin duen arau erreformaren esparruan kokatu behar da: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 DBEO), eta baita horren ondorioz Estatuak onartu duen 3/2018 Lege Organikoaren baitan ere.

Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarrea udalaren lokaletan emango den formazio ikastaroen titularra da eta beraz, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen eskubideak babesteko arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko ditu.

Udalak eta Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarreak zenbait datu partekatu dezaketa formazio prestakuntza bideratzeko, eta kasu horiek bideratzeko erantzunkidetasun-hitzarmen bat sinatuko dute.

Bakoitzak eskuratutako datuak bakarrik formazio prestakuntza emateko erabili ahal izango





Azpeitiko Udala

dituzte eta ezin izango dituzte beste helburu baterako aplikatu edo erabili.

Hitzarmen honen bitartez Udalaren datu pertsonalak eskuratzen badira, **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarte**a Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarritik datozen eginbeharrak bete beharko ditu.

Hitzarmenaren prestazioa amaitu ondoren, tratatutako datu pertsonalak udalari eman beharko zaizkio, baita tratatzeko moduko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Hitzarmen honen bidez ezagutu ditzaketen datuei buruz, **Zabaltzen-Sartu Koop. Elkarte**a eta bere langileak espresuki behartuta daude datu guztiak zeharo isilpean mantentzera (datu pertsonalak barne).


Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu hau izenpetu dute lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.



Ibon Díaz de Rada Quintana
Zabaltzen-Sartu Koop. Elk.-eko Presidentea

72471832 Firmado
M NAGORE digitalmente
por 72471832M
ALCORTA NAGORE
(R: ALCORTA (R:
P2001900F) P2001900F)
Fecha:
2020.07.29
17:52:19 +02'00'





PLANTA SEGUNDA

SUPERFICIES ÚTILES (m²)

12 Sala reuniones	73,25
13 Sala formación	78,65
14 Galería/Despachos	42,00
15 Aseos/Almacenes	24,45
Escaleras y distribuidores	50,30

TOTAL PLANTA SEGUNDA 268,65

SUPERFICIES CONSTRUIDAS (m²)

TOTAL PLANTA SEGUNDA 350,20

Idazkaritza

Azpeitiko Udala



MITxelena

AZPEITIKO UDALA / AYUNT. AZPEITIA

PALACIO - BASOZABAL - JAUREGIA

Enparan Kalea 18, Azpeitia -Gipuzkoa-


BERRERABILTZEKO PROIEKTUA / PROJ. REUTILIZACIÓN

EGOERA ERABERRITSUA / ESTADO REFORMADO

Bigarren Solairua / Planta Segunda

07-12-01

1:100



PLANTA TERCERA

SUPERFICIES ÚTILES (m²)

16 Sala	73,15
17 Sala	78,25
18 Galería Exterior	44,05
19 Aseo/Almacenes	25,00
Escaleras y distribuidoras	51,80

TOTAL PLANTA TERCERA 272,25

SUPERFICIES CONSTRUIDAS (m²)

TOTAL PLANTA TERCERA 350,20



MITXELENA
AZPEITIKO UDALA / AYUNT. AZPEITIA

MITXELENA
AZPEITIKO UDALA / AYUNT. AZPEITIA

AZPEITIKO UDALA / AYUNT. AZPEITIA

PALACIO - BASOZABAL - JAUREGIA

Enparan Kalea 18, Azpeitia -Gipuzkoa-

EGOERA ERABERRITSUA / ESTADO REFORMADO
Hirugarren Solairua / Planta Tercera

BERRERABILTZEKO PROIEKTUA / PROJ. REUTILIZACIÓN

07-16-01 1:100



PLAN DE COOPERACIÓN 2020-2024: AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA Y ZABALTZEN SARTU

AZPEITIKO UDALA ETA ZABALTZEN SARTU LANKIDETZA PLANA 2020-2024

ANTECEDENTES

Zabaltzen Sartu Koop Elk, es una cooperativa sin ánimo de lucro, que forma parte junto a otras tres entidades (Erroak, Gaztaroa y Sartu Alava) de la Asociación Sartu Taldea, entidad que opera desde 1988 en la CAE con un planteamiento de servicio público y cuya misión es el desarrollo de actividades y servicios encaminados a conseguir la plena inclusión social de personas y/o grupos en situación de exclusión o desventaja social y la promoción de comunidades integradoras.

Todo ello en colaboración con la red de servicios sociales, de empleo y comunitarios existentes de la CAPV, los Territorios Históricos y de los municipios.

Para conseguir este objetivo utilizamos diferentes herramientas metodológicas que se plasman en servicios y proyectos que llevamos a cabo en función de las necesidades sociales que vamos detectando (desde nuestros servicios, en diagnósticos compartidos con otros agentes, etc...). Alguno de esos servicios -proyectos son: servicios de orientación, información y acompañamiento, formación profesional, formación socioeducativa, intermediación laboral, emprendizaje, proyectos para la inclusión social, desarrollo comunitario, etc..., es decir, una intervención basada en las personas y con el entorno.

AURREKARIAK

Zabaltzen Sartu Koop ELk irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat da, Sartu Taldearen beste hiru erakunderekin batera (erroak, Gaztaroa eta Sartu Alava). 1988tik EAEn jarduten du, zerbitzu publikoaren planteamenduarekin, eta honako helburu hau du: **baztertuta edo desabantaila-egoeran dauden pertsonak eta/edo taldeak erabat gizarteratzea eta komunitate integratzaileak sustatzea.**

Hori guztia EAEko, lurralde historikoetako eta udalerrietako gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan. Helburu hori lortzeko, hainbat tresna metodologiko erabiltzen ditugu, hautematen ditugun gizarte-beharren arabera gauzatzen ditugun zerbitzu eta proiektuetan islatzen direnak (gure zerbitzuetatik, beste eragile batzuekin partekatutako diagnostikoetatik, etab.). Zerbitzu - Proiektu horietako batzuk honako hauek dira: orientazio-, informazio- eta laguntza-zerbitzuak, lanbide-heziketa, prestakuntza sozioeducatiboa, lan-bitartekaritza, ekintzailatza, gizarteratzeko proiektuak, garapen komunitarioa, etab., hau da, **pertsonetan eta ingurunearekin oinarritutako esku-hartzea.**



Azpeitiko Udala



Es en ese entorno donde el **trabajo colaborativo y en lo local** cobra mayor sentido. Ese es el caso del Ayuntamiento de Azpeitia y nuestra relación en concreto con los servicios sociales de base con los que hemos mantenido una relación en la última época con la puesta en marcha de diferentes proyectos: Programa Auzolan, Programas de formación para el empleo, servicio de orientación especializada Lanbide etc.

Colaborando también de forma activa en las iniciativas de la comarca, en concreto, la Red comarcal para la incorporación social y laboral de las personas en situación de exclusión social y en el diseño de proyectos que en ese espacio puedan surgir.

Teniendo en cuenta esta relación histórica y valorando la oportunidad que las nuevas infraestructuras del municipio, en concreto el Palacio Basosabal, pueden ofrecer como espacio de formación-inserción sociolaboral, para los ciudadanos y las ciudadanas que presentan situaciones más vulnerables, proponemos los siguientes objetivos a trabajar para los siguientes cuatro años.

OBJETIVOS DEL PROYECTO CENTRO BASAZABAL PARA LA INCORPORACIÓN SOCIAL Y LABORAL AZPEITIA

Partiendo que existe un objetivo común compartido del Ayuntamiento de Azpeitia y Zabaltzen - Sartu que es la promoción de las personas que se encuentran en situación de mayor vulnerabilidad en los ámbitos de empleo, formación, inclusión social y desarrollo comunitario. Se plantean


Ingurune horretan hartzen du zentzurik handiena **elkarlanak eta tokian tokikoak**. Hori da, hain zuzen ere, Azpeitiko Udalaren kasua, eta, zehazki, oinarritzko gizarte-zerbitzuekin dugun harremana, azken aldian harreman bat izan baitugu hainbat proiektu abian jartzearekin: Auzolan programa, enplegurako prestakuntza-programak, Lanbideren orientazio-zerbitzu espezializatua, etab.

Eskualdeko ekimenetan ere modu aktiboan parte hartuz, zehazki, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko eskualdeko sarean eta gune horretan sor daitezkeen proiektuen diseinuan.

Harreman historiko hori kontuan hartuta, eta udalerriko azpiegitura berriek, zehazki Basosabal jauregiak, egoera ahulenak dituzten herritarrentzat prestakuntza- eta gizarteratze- eta laneratze-gune gisa eskain dezaketen aukera aintzat hartuta, hurrengo lau urteetarako honako helburu hauek proposatzen ditugu:

AZPEITIA, GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO BASAZABAL ZENTROA PROIEKTUAREN HELBURUAK

Abiapuntutzat hartuta Azpeitiko Udalaren eta Zabaltzen - Artu elkartearen helburu komun bat dagoela, hau da, egoera ahulenean dauden pertsonak sustatzea enpleguaren, prestakuntzaren, gizarteratzearen eta komunitate-garapenaren arloetan. Jarraian, hurrengo urteetan landu beharreko lerro batzuk





continuación una serie de líneas de trabajo a abordar en los siguientes años:

1.-Identificar oportunidades de financiación /subvención para la puesta en marcha de acciones de formación e inclusión social

Descripción: Son varias las oportunidades que pueden surgir en estos cuatro años de colaboración que tengan que ver con las necesidades sociales detectadas en el municipio/comarca¹, y con su posibilidad de financiación.

Indicadores:

- Convocatorias identificadas
- Proyectos presentados
- Proyectos concedidos
- Personas atendidas

2.-Analizar de forma compartida la oferta formativa que el centro por sus posibilidades puede ofrecer

Descripción: Adecuar las formaciones a los espacios del centro Basasabal, para lo cual Zabaltzen Sartu:

- Realizará un análisis de posibles formaciones a impartir según las características del centro.
- Homologará las aulas para la realización de las formaciones detectadas

3.-Consolidar la cooperación Ayuntamiento Azpeitia y Zabaltzen

planteatzen

dira:

1.-Prestakuntza- eta gizarteratze-ekintzak abian jartzeko finantzaketa-aukerak/dirulaguntzak identifikatzea

Deskribapena: lau urte hauetan hainbat aukera sor daitezke lankidetzan, udalerrian/eskualdean hautemandako gizarte-beharrekin eta horiek finantzatzeko aukerarekin zerikusia dutenak¹.

Adierazleak:

- Identifikatutako deialdiak
- Aurkeztutako proiektuak
- Emandako proiektuak
- Artatutako pertsonak

2. Zentroak, dituen aukerak direla-eta, eskain dezakeen prestakuntza-eskaintza modu partekatuan aztertzea

Deskribapena: formazioak Basasabal zentroko espazioetara egokitzea; horretarako, Zabaltzen Sartu:

- Zentroaren ezaugarrien arabera eman daitezkeen prestakuntzen azterketa egingo du.
- Antzemandako prestakuntzak egiteko gelak homologatuko ditu.

3. Azpeitiko Udalaren eta Zabaltzen Sarturen arteko lankidetzaren sendotzea

¹ Eskualdea aipatzen da, lortuko diren finantzaketa-iturri batzuk unibertsalak direlako. Adibidez, Lanbideren prestakuntza-eskaintza eskaintza unibertsala da, eta bertan parte har dezakete udalerrian, eskualdean, lurraldean edo, interesa izanez gero, EAEn bizi diren udalerriek.

Se hace mención a la comarca debido a que algunas de las fuentes de financiación que se vayan a conseguir son universales. Por ejemplo, la oferta formativa de Lanbide es una oferta universal en la que puede participar toda persona que cumpla con los municipios que viva en el municipio, en la comarca, del territorio e incluso de la CAPV, en el caso de que tenga interés.



Sartu

Descripción: Este proyecto está dirigido a personas que se encuentran en situación de mayor vulnerabilidad en los ámbitos de empleo, formación, inclusión social y desarrollo comunitario, y pretende fomentar la creación de los recursos necesarios para la promoción del desarrollo personal y la capacitación profesional del colectivo.

Un proyecto colaborativo de estas características requiere de una cooperación y construcción compartida Ayuntamiento Azpeitia y Zabaltzen Sartu de lo que queremos que sea el centro:

- Planificar, dirigir y supervisar la actividad general de la iniciativa, para lograr la máxima eficacia y el cumplimiento de los objetivos planteados.
- Coordinar con la Red de Entidades Aliadas el establecimiento del centro de formación Basazabal en el ámbito de la exclusión social.

Para ello será preciso la creación de un comité de coordinación técnica entre Ayuntamiento de Azpeitia y Zabaltzen Sartu.

- Las funciones del comité técnico serán
 - a) Planificar las acciones formativas más adecuadas a las personas y a los requerimientos del mercado laboral del entorno
 - b) Coordinar con la Red de Entidades

Deskribapena: proiektu hau enpleguaren, prestakuntzaren, gizarteratzearen eta gizarte-garapenaren arloetan egoera ahulenean dauden pertsonen zuzendutako, eta kolektiboaren garapen pertsonala eta lanbide-gaikuntza sustatzeko beharrezkoak diren baliabideen sorrera sustatu nahi du.

Horrelako lankidetzaren proiektu batek Azpeitiko Udaren eta Zabaltzen Sarturen lankidetzaren eta eraikuntza partekatua eskatzen du, zentroa izan dadin nahi duguna:

- Ekimenaren jardura orokorra planifikatzea, zuzentzea eta gainbegiratzea, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko eta planteatutako helburuak betetzeko.
- Erakunde Aliatuen Sarearekin koordinatzea Basazabal prestakuntza-zentroaren ezarpena gizarte-bazterketaren arloan.

Horretarako, koordinazio teknikoko batzorde bat sortu beharko da Azpeitiko Udaren eta Zabaltzen Sarturen artean.

- Hauek dira batzorde teknikoaren eginkizunak:
 - a) Inguruko lan-merkatuaren eskakizunetara eta pertsonentzat egokienak diren prestakuntza-ekintzak planifikatzea.
 - b) Erakunde Aliatuen Sarearekin (Iraurgi





Azpeitiko Udala



Aliadas (Iraurgi Berritzen, entidades educativas, etc) el establecimiento de las acciones :

c) Realizar el seguimiento de las gestión de la iniciativa.

d) Informar regularmente a las y los presidentes de las comisiones de formación y Servicios sociales sobre la materialización de los objetivos.

Berritzen, hezkuntza-erakundeak, etab.) koordinatzea ekintzen ezarpena.

c) Ekimenaren kudeaketaren jarraipena egitea.

d) Prestakuntza-batzordeetako eta gizarte-zerbitzuetako buruei aldian-aldian helburuak gauzatzeari buruzko informazioa ematea.

Programa y memoria

El calendario escolar se ejecutará del 1 de septiembre al 15 de julio. Al inicio de cada curso antes del 15 de septiembre se presentará un programa del año escolar.

Al final de cada curso antes del 30 de julio se mostrará la memoria del año.

Programa eta memoria

Eskola-egutegia irailaren 1etik uztailaren 15era gauzatuko da. Ikasturte bakoitzaren hasieran, irailaren 15a baino lehen, urteko programa bat aurkeztuko da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, uztailaren 30a baino lehen, urteko memoria erakutsiko da.

Azpeitian, 2020ko uztailaren 27an

Sin:Edurne Zubia Artabe

Sin: Marta Senz Eriz

Gizarte Zerbitzuetako arduraduna

Koordinatzaile orokorra



ZABALTZEN-SARTU Koop. Elk.-eko Presidentea



Azpeitiko Udala



Aliadas (Iraurgi Berritzen, entidades educativas, etc) el establecimiento de las acciones :

c) Realizar el seguimiento de las gestión de la iniciativa.

d) Informar regularmente a las y los presidentes de las comisiones de formación y Servicios sociales sobre la materialización de los objetivos.

Programa y memoria

El calendario escolar se ejecutará del 1 de septiembre al 15 de julio. Al inicio de cada curso antes del 15 de septiembre se presentará un programa del año escolar.

Al final de cada curso antes del 30 de julio se mostrará la memoria del año.

Berritzen, hezkuntza-erakundeak, etab.) koordinatzea ekintzen ezarpena.

c) Ekimenaren kudeaketaren jarraipena egitea.

d) Prestakuntza-batzordeetako eta gizarte-zerbitzuetako buruei aldian-aldian helburuak gauzatzeari buruzko informazioa ematea.

Programa eta memoria

Eskola-egutegia irailaren 1etik uztailaren 15era gauzatuko da. Ikasturte bakoitzaren hasieran, irailaren 15a baino lehen, urteko programa bat aurkeztuko da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, uztailaren 30a baino lehen, urteko memoria erakutsiko da.

Azpeitian, 2020ko uztailaren 27an

Sin: Edurne Zubia Artabe

Gizarte Zerbitzuetako arduraduna

Sin: Marta Senz Eriz

Koordinatzaile orokorra



ZABALTZEN-SARTU Koop. Elk. -eko Presidentea